

# CAMPAÑA DE MISIONES DIOCESANAS - 2020

## LA MISION ES VIDA



LA  
MISION  
ES VIDA

MISIOA  
BIZIA  
DA

19 de marzo  
martxoak 19  
2020

[www.misioak.org](http://www.misioak.org)

**MMDDVV**  
elzbarrutietako misioak  
misiones Diocesanas Vascas

### DELEGACION DIOCESANA DE MISIONES

Plaza Nueva, 4 – 2ª Planta – 48005 BILBAO

Teléfono: 94 401.36.99

e-mail: [misiobi@bizkeliza.org](mailto:misiobi@bizkeliza.org). [www.misioak.org](http://www.misioak.org)

## **“LA MISION ES VIDA”**

19 de marzo 2020

Un saludo,

Desde la delegación de misiones os queremos hacer partícipes de esta nueva campaña de Misiones Diocesanas que ponemos en marcha el próximo mes de marzo. Este año con el lema “la Misión es vida”.

La Misión se hace vida en las personas que dicen si al proyecto de vida que Dios nos propone. La misión transforma radicalmente nuestras vidas y les da sentido. La misión es vida porque trae una Buena Nueva de liberación de las opresiones, de recuperación de dignidad arrebatada, de reconquista de autoestima pisoteada. Jesús antepone un criterio ético a lo que venían haciendo los sabios de Israel: la relación con Dios pasa por la relación con las personas, no hay manera de amar verdaderamente a Dios que no sea amar al otro. El Reino de Dios es la culminación del amor, y la misión es poner la vida a su servicio. Esto debería interpelarnos.

En nuestras diócesis este año cuatro personas nuevas, sacerdotes y seglares, se suman a la familia de Misiones Diocesanas Vascas. Damos gracias a Dios por Ramón Diaz-Guardamino, Iraide Donaire, Itziar Bagües y Joseba Olaziregi que han optado por la Misión hecha vida en Etiopía y Ecuador. Estas incorporaciones son fruto del Espíritu y del empeño por seguir formando a personas jóvenes y adultas para que, desde la oración, la formación y el conocimiento de la realidad de nuestro mundo, salgan al encuentro de Jesús en las personas empobrecidas.

La llamada de Jesús nos dinamiza, si le damos respuesta y no nos deja indiferentes, nos pone en movimiento. Queremos que sean días donde los verdaderos protagonistas sean los misioneros y misioneras y todas y cada una de las personas con las que cada día renuevan el compromiso al Evangelio que les hace posible afrontar problemas, retos, riquezas y pobreza.

Queremos seguir tejiendo fraternidad y como iglesias misioneras acercar la realidad social, eclesial y política de las comunidades con las que compartimos camino. Para ello nos acompañará la Misionera de Nuestra Señora de África Begoña Iñara, seguro que su testimonio y reflexiones nos enriquecerán.

Junto a esta carta recibiréis los diferentes materiales para la campaña: La carta de los Obispos de nuestras diócesis; la Liturgia del día de Misiones Diocesanas; power point para las celebraciones y grupos, los carteles alusivos al Día (en la Delegación podéis pedir más). Podéis encontrar más información de la campaña en [www.misioak.org](http://www.misioak.org).

Gracias de antemano por vuestro apoyo y generosidad.

Felicitas Martín Fernández

Delegada Diocesana de Misiones

## MENSAJE DEL OBISPO

Queridos hermanos:

Nuestro saludo más afectuoso en la Jornada de las Misiones Diocesanas Vascas. Es una gracia para nuestras comunidades diocesanas refrescar sus raíces misioneras. El Papa Francisco en su Carta al Pueblo de Dios que peregrina en Alemania recuerda algunas claves que nos pueden ayudar tremendamente en estos momentos. Las brindamos como unas señales que nos marcan también nuestro camino sinodal misionero.

"Es necesario, por tanto, como bien lo señalaron vuestros pastores, recuperar el primado de la evangelización para mirar el futuro con confianza y esperanza porque, evangelizadora, la Iglesia comienza por evangelizarse a sí misma. Comunidad creyente, comunidad de esperanza vivida y comunicada, comunidad de amor fraterno, tiene necesidad de escuchar sin cesar lo que debe creer, las razones para esperar, el mandamiento nuevo del amor" (7) Toda nuestra acción misionera parte de este primer anuncio del amor increíble del Señor. Ése fue el origen de nuestra colaboración misionera en aquellas tierras. A ese origen volvemos cada año en esta jornada.

"De ahí que nuestra preocupación principal debe rondar en cómo compartir esta alegría abriéndonos y saliendo a encontrar a nuestros hermanos principalmente aquellos que están tirados en el umbral de nuestros templos, en las calles, en cárceles y hospitales, plazas y ciudades. El Señor fue claro: «buscad primero el Reino y su justicia, y todo lo demás se os dará por añadidura» (Mt 6, 33). Salir a ungir con el espíritu de Cristo todas las realidades terrenas, en sus múltiples encrucijadas principalmente allí donde se gestan los nuevos relatos y paradigmas, alcanzar con la Palabra de Jesús los núcleos más profundos del alma de las ciudades. Ayudar a que la Pasión de Cristo toque real y concretamente las múltiples pasiones y situaciones donde su Rostro sigue sufriendo a causa del pecado y la inequidad." (8) Refrescamos, con ocasión de esta jornada, la prioridad por las personas más vulnerables, los pobres como lugar teológico, los últimos como icono del rostro del Señor y nuestro servicio a los más desfavorecidos como termómetro de nuestra relación con el Señor.

"Y, a su vez, sea la Pasión del Señor la que despierte en nuestras comunidades y, especialmente en los más jóvenes, la pasión por su Reino.

Esto nos pide «desarrollar el gusto espiritual de estar cerca de la vida de la gente, hasta el punto de descubrir que eso es fuente de un gozo superior. La misión es una

pasión por Jesús, pero, al mismo tiempo, una pasión por su pueblo» (EG. 268) Deberíamos, por tanto, preguntarnos qué cosa el Espíritu dice hoy a la Iglesia (Ap 2, 7), reconocer los signos de los tiempos, lo cual no es sinónimo de adaptarse simplemente al espíritu del tiempo sin más (Rm 12, 2). Todas estas dinámicas de escucha, reflexión y discernimiento tienen como objetivo volver a la Iglesia cada día más fiel, disponible, ágil y transparente para anunciar la alegría del Evangelio, base sobre la cual pueden ir encontrando luz y respuesta todas las cuestiones. Los desafíos están para ser superados. Debemos ser realistas, pero sin perder la alegría, la audacia y la entrega esperanzada. ¡No nos dejemos robar la fuerza misionera!".

Importa mucho, en nuestras comunidades frágiles y envejecidas, acertar con las prioridades. No nos sobran fuerzas como para permitirnos el lujo de equivocarnos. Dar la mejor respuesta en este momento, supone asumir el "sensus ecclesiae " en comunión con Pedro y el colegio apostólico, en sintonía con el santo pueblo fiel de Dios, y tal y como la Iglesia universal celebra los sacramentos y explica la Palabra.

"Salid al encuentro de cada persona con la amabilidad y la compasión del padre misericordioso, con ánimo fuerte y generoso. Prestad atención a percibir como vuestro el bien y el mal del otro, capaces de ofrecer con gratuidad y ternura la misma vida. Que esta sea vuestra vocación; para que como dice Santa Teresa del Niño Jesús: solo el amor hace actuar a los miembros de la Iglesia; si el amor se apagase, los apóstoles ya no anunciarían el Evangelio, los mártires se negarían a derramar su sangre.", decía el Papa a los obispos italianos en su 70 asamblea.

Jornada para renovar el amor misionero y para colaborar con generosidad con nuestros misioneros y con nuestras comunidades hermanas. Que nuestros jóvenes sean los primeros cuestionados y beneficiados ante esta misión apasionante que compartimos.

Con todo nuestro afecto, nuestra bendición

+ Mario Iceta Gabicagogeascoa, obispo de Bilbao

+ Jose Ignacio Munilla Aguirre, obispo de San Sebastián

+ Juan Carlos Elizalde Espinal, obispo de Vitoria

**Día 19 de marzo de 2020**

## **DÍA DE LAS MISIONES DIOCESANAS**

### **“LA MISION ES VIDA”**

#### **Monición inicial**

Ongi etorri denoi.

Hermanas y hermanos: En nuestro recorrido cuaresmal, la Iglesia nos invita a celebrar con gozo la fiesta de San José y a responder como él a las propuestas que Dios nos hace con confianza y generosidad, porque la grandeza de la santidad de José está en su fe y su cercanía a Dios, cercanía de amor y servicio.

Hoy celebramos el día de las Misiones Diocesanas con el lema **La misión es vida**. El encuentro con Jesucristo en los empobrecidos de la tierra nos da vida y nos hace ser transmisores de vida en plenitud. Esta es la experiencia de tantas personas que en el País Vasco han participado como misioneras y misioneros en Misiones Diocesanas Vascas.

La Misión se hace vida en las personas que dicen sí al proyecto de Vida que Dios nos propone. La misión transforma radicalmente nuestras vidas y les da sentido. El poner rostro a esos hermanos y hermanas empobrecidas, nos hace más conscientes de lo que tenemos y nos invita a asumir compromisos en nuestra misión diaria, ser sal, ser luz, ser vida compartida.

Con agradecimiento y esperanza nos presentamos juntos ante el Señor.

#### **Saludo del presidente**

**La gracia y la paz de Jesucristo, el Señor de la Vida, estén con todos vosotros.**

#### **Acto penitencial**

Desde nuestra condición de pecadores, acojamos con gozo la misericordia y el perdón del Señor:

- Tú eres el Dios defensor de la vida y de los pobres. Señor, ten piedad.
- Tú eres esperanza en medio de nuestras angustias. Cristo, ten piedad.
- Tú eres fuerza en medio de nuestra debilidad. Señor, ten piedad.

Padre-Madre Dios, que sufres en la injusticia de tus hijos/as, danos tu perdón, tu sabiduría y tu misericordia para enderezar nuestra apatía, superar nuestros miedos al compromiso y acoger a los hermanos y hermanas. Por Jesucristo, nuestro Señor

#### **Monición a las lecturas**

José es el eslabón de la historia que introduce a Jesús en la descendencia de David. En la primera lectura escuchamos cómo David piensa construir un templo al Señor.

La segunda lectura quiere ayudar a releer la historia a luz de la fe de Abrahán, patriarca y padre de los creyentes, y que recibe la promesa de ser padre de muchas generaciones. Él cree y confía plenamente en la palabra de Dios.

### **IDEAS PARA LA HOMILIA**

*(Si ha habido testimonio antes o ahora, la homilía puede partir de él, abundando en el lema de la jornada).*

La Misión se hace vida en las personas que dicen sí al proyecto de Vida que Dios nos propone. En nuestras diócesis, en medio de una sociedad consumista, individualista, y a pesar de la escasez vocacional que vivimos a nivel misionero, el Espíritu sigue suscitando vocaciones misioneras que se suman a la familia de Misiones Diocesanas Vascas. Debemos seguir dando gracias a Dios por los misioneros y misioneras que han optado por la Misión hecha vida en los países empobrecidos. Para nosotros y nosotras es un ejemplo a seguir, nuestra tarea será apoyarles y acercarnos para compartir su experiencia y su vida. Como nos dicen los Profetas:

*“Hay esperanza para el porvenir”, Jer.31, 17. “Algo nuevo está naciendo, no lo notáis”, Is. 43,19*

Dios no se cansa de llamarnos, de urgirnos a seguir creando un mundo mejor.

En la misión, el Señor resucitado nos sale al encuentro en medio de humildes comunidades de gente humanamente irrelevante y débil, que ponen en el centro su Palabra, y se sienten en su casa, haciendo la Iglesia de los pobres. La misión así vivida, compartiendo la vida junto a los pobres, de aquí y del mundo entero, nos introduce en una dinámica permanente de conversión, de cambio, como personas y como Iglesia.

En esta Campaña partimos de la experiencia vivida por quienes desde diferentes lugares, tiempos y formas hemos comprobado que “LA MISIÓN ES VIDA - MISIÓN BIZIA DA”, conscientes de que en la vida, al igual que en el Amor, cuando más se da, más se tiene. La experiencia de la misión, el salir de lo propio, el acercarse a quienes más sufren y compartir el tiempo, la fe, la propia persona... nos permite afirmar que la misión es vida. *“He venido para que tengáis vida y vida en abundancia”. Jn. 10,10ss*

La misión transforma radicalmente nuestras vidas y les da sentido. Nuestra vida tiene una misión. La misión es vida porque trae una Buena Nueva de liberación de las opresiones, de recuperación de dignidad arrebatada, de reconquista de autoestima pisoteada. Jesús antepone un criterio ético a lo que venían haciendo los sabios de Israel: la relación con Dios pasa por la relación con las personas, no hay manera de amar verdaderamente a Dios que no sea amar al otro. El Reino de Dios es la culminación del amor, y la misión es poner la vida a su servicio. Esto debería interpelarnos.

El encuentro con Jesús en los empobrecidos de la tierra, nos da vida y nos hace ser transmisores de vida en plenitud. El poner rostro a esos hermanos y hermanas empobrecidas, en gran parte, por nuestro egoísta estilo de vida, nos hace más conscientes de lo que tenemos (oportunidades, conocimiento, recursos...) y nos invita a asumir compromisos en nuestra misión diaria, ser sal, ser luz, ser vida compartida.

*¡Qué maravillosa certeza es que la vida de cada persona no se pierde en un desesperante caos, en un mundo regido por la pura casualidad o por ciclos que se repiten sin sentido! El Creador puede decir a cada uno de nosotros y nosotras:*

*“Antes que te formaras en el seno de tu madre, yo te conocía» (Jr 1,5). Fuimos concebidos en el corazón de Dios, y por eso «cada uno de nosotros es el fruto de un pensamiento de Dios. Cada uno de nosotros es querido, cada uno es amado, cada uno es necesario”. LS 38*

### **Oración universal**

Oremos hermanos, y pidamos la misericordia del Señor para que, escuche nuestras plegarias:

- Por la Iglesia, para que nos dejemos cambiar por Jesús, poniéndonos en estado permanente de misión, al lado de los pobres. Oremos
- Por los políticos y gobernantes, para que pongan fin a esas políticas hostiles contra los emigrantes y defiendan los derechos de todas las personas a una vida digna. Oremos
- Por la salud y el fortalecimiento espiritual de nuestros misioneros, para que se sientan arropados con nuestra oración y ayuda. Oremos.
- Por las comunidades y pueblos del mundo con quienes seguimos manteniendo relación desde nuestras comunidades cristianas, para que en esta relación aprendamos unos de otros. Oremos.
- Para que en la Eucaristía nos dejemos transformar por Jesús, le sigamos con confianza y asumamos con alegría la misión a la que nos llama. Oremos.
- Por nuestras diócesis, para que nos sigamos ayudando a ser Iglesias en estado permanente de misión, haciendo camino con los más pobres entre nosotros. Oremos

Dios Padre bueno, que encomendaste a san José el cuidado de Jesús y María, haz que siga siendo nuestro protector para que lleguemos a heredar tus promesas. Por Jesucristo nuestro Señor.

### **Monición a la colecta de dinero**

La colecta de hoy es para nuestras Misiones Diocesanas. Nuestra aportación será empleada especialmente en los proyectos que están desarrollando nuestros misioneros y misioneras. Gracias por vuestra generosidad.

### **Despedida del presidente (después de la bendición)**

**Estamos en tiempo de gracia y salvación, tiempo de muerte y vida. Hoy es la hora de Dios en nosotros. Orar es aprovechar esta oportunidad. Podéis ir en paz.**

## MARCO TEORICO

Durante el Mes Misionero hemos sentido que las Diócesis han sido realmente misioneras y eso mismo queremos volver a vivir en la Campaña de San José de 2020.

La Misión se hace vida en las personas que dicen sí al proyecto de Vida que Dios nos propone. En nuestras diócesis, en medio de una sociedad consumista, individualista, y a pesar de la escasez vocacional que vivimos a nivel misionero, este año cuatro personas nuevas, sacerdotes y seglares, se suman a la familia de Misiones Diocesanas Vascas. Debemos dar gracias a Dios por Ramón, Iraide, Itziar y Joseba que han optado por la Misión hecha vida en Etiopía y Ecuador y dedicarnos a acompañarles, apoyarles y acercarnos para compartir su experiencia y su vida.

*"Hay esperanza para el porvenir", Jer.31,17. "Algo nuevo está naciendo, no lo notáis", Is. 43,19*

Estas incorporaciones son fruto del Espíritu y del empeño por seguir formando a personas jóvenes y adultas para que, desde la oración, la formación y el conocimiento de la realidad de nuestro mundo, sientan cómo les interpela y les ayude a salir de ellos mismos al encuentro de Jesús en las personas empobrecidas, porque Dios no se cansa de llamarnos, de urgirnos a seguir creando un mundo mejor.

### LA MISIÓN ES VIDA

En esta Campaña partimos de la experiencia vivida por quienes desde diferentes lugares, tiempos y formas hemos comprobado que "LA MISIÓN ES VIDA - MISIOA BIZIA DA", conscientes de que en la vida, al igual que en el Amor, cuando más se da, más se tiene. La experiencia de la misión, el salir de lo propio, el acercarse a quienes más sufren y compartir el tiempo, la fe, la propia persona... nos permite afirmar que la misión es vida.

*"He venido para que tengáis vida y vida en abundancia". Jn. 10,10ss*

### LA MISIÓN ES VIDA

El poner rostro a esos hermanos y hermanas empobrecidas, en gran parte, por nuestro egoísta estilo de vida, nos hace más conscientes de lo que tenemos (oportunidades, conocimiento, recursos...) y nos invita a asumir compromisos en nuestra misión diaria, ser sal, ser luz, ser vida compartida.

*Sentirnos cuerpo con toda la humanidad y "la creación que gime dolores de parto" (Rom 8,22)*

### LA MISIÓN ES VIDA

El Encuentro con Jesús en los empobrecidos de la tierra, nos da vida y nos hace ser transmisores de vida en plenitud.

*"Los humildes y los pobres buscan agua, pero no hay nada. La lengua se les secó de sed. Yo, Yahveh, les responderé, Yo, Dios de Israel, no los desampararé. Abriré sobre los calveros arroyos y en medio de las barrancas manantiales. Convertiré el desierto en lagunas y la tierra árida en hontanar de aguas." Is. 41,17-18*

### LA MISIÓN ES VIDA

Testimonios como el de Isidro Uzcudun: "no quiero ir, pero no puedo no ir", misionero en Ruanda, hacen que la vida cobre un sentido de entrega, de compromiso.

*¡Qué maravillosa certeza es que la vida de cada persona no se pierde en un desesperante caos, en un mundo regido por la pura casualidad o por ciclos que se repiten sin sentido! El Creador puede decir a cada uno de nosotros: "Antes que te formaras en el seno de tu madre, yo te conocía" ( Jr 1,5). Fuimos concebidos en el corazón de Dios, y por eso «cada uno de nosotros es el fruto de un pensamiento de Dios. Cada uno de nosotros es querido, cada uno es amado, cada uno es necesario". LS 38*



# EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA 2020

## MISIOA BIZIA DA

LA  
MISIÓN  
ES VIDA

MISIOA  
BIZIA  
DA

19 de marzo  
martxoak 19  
2020

[www.misioak.org](http://www.misioak.org)

**MMDDVV**  
elizbarrutietako misioak  
misiones diocesanas vascas

### ELIZBARRUTIKO MISIOEN ORDEZKARITZA

Plaza Nueva, 4 – 2ª Planta – 48005 BILBAO

Teléfono: 94 401.36.99

e-mail: [misiobi@bizkeliza.org](mailto:misiobi@bizkeliza.org) [www.misioak.org](http://www.misioak.org)

## **“MISINOA BIZIA DA”**

2020.eko martxoaren 19a

Agur bat,

Misinoetarako Ordezkaritzatik, datorren martxoan martxan jarriko dogun Eleizbarrutiko Misinoen aurtengo kanpainaren barri emon gura deusuegu. “Misinoa bizia da” goiburua aukeratu da ekitaldi honetarako.

Misinoa bizi egiten da Jainkoak bizitzarako proposatzen deuskun egitasmoari baiezkua emoten deutsen gizon eta emakumeengan. Misinoak goitik behera aldatzen ditu gure bizitzak eta zentzunez beteten.

Misinoa bizia da, Barri Ona dakarrelako: zapalketetatik askatu, kendutako duintasuna berreskuratu, zapaldutako autoestimua barriz lortu. Jesusek erizpide etikoa jarten deutse Israelgo jakintsuek egiten ebenari: Jainkoagazko hartu-emona, gizon-emakumeakazko hartu-emonetik pasatzen da eta ezin da benetan Jainkoa maitatu, bestea maitatzen ez bada. Jainkoaren Erreinua maitasunaren burutzea da eta misinoa bizitza horren zerbitzura jartea. Honek zer pentsatu emon beharko leuskigu.

Gure eleizbarrutietan, beste lau lagun, abade eta laiko, gehitu behar jakoz Euskal Eleizbarrutietako Misinoen familia handiari. Eskerrak emoten deusaguz Jainkoari Ramon Diaz-Guardamino, Iraide Donaire, Itziar Bagues eta Joseba Olazirengaitik Etiopia eta Ekuadorren bizi egindako misinoagaz bat egin dabelako. Misiolari barri honeek, Espirituaren eta otoitzetik, heziketatik, gure munduaren egoera ezagutzetik gazte eta helduak hezi eta behartsuenengan Jesus aurkitzera atara daitezcan, egiten dogun ahaleginaren emaitza dira.

Jesusen deiak bizitu egiten gaitu; axolagabe itzi orde, erantzun egiten badeusagu, mobimentuan jarten gaitu. Datozan egunetan, gure misiolariak benetako protagonista izatea nahi dogu eta, eurakaz batera, egunero Ebanjelioaren aldeko konpromisoa barritu eta arazo, erronka, aberastasun eta pobretasunei aurre egiten saiatzen diran guztiak.

Senidetasuna josten jarraitu gura dogu eta Eleiza misiolari lez bidelagun doguzan alkartean gizarte, eleiz eta politika errealidadea hurreratu. Horretarako, Begoña Iñarra Afrikako Andra Mari ordenako misiolaria izango da gure artean, lekukotasun eta hausnarketa aberasgarriak eskainiz.

Honako honegaz batera, kanpainarako hainbat lagungarri jasoko dozue: Eleizbarrutietako Gotzainen gutuna; Eleizbarrutiko Misinoen egunerako liturgia; power-pointa ospakizun eta taldeetan erabiltzeko; kartelak (Ordezkaritzan gehiago eskatzeko aukera). Kanpainaren inguruan gehiago jakiteko: [www.misioak.org](http://www.misioak.org).

Aldez aurretik, eskerrik asko zuon laguntza eta eskuzabaltasunagaitik.

Felicitas Martin Fernandez

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkarria

## **“MISINOA BIZIA DA”**

Anai-arreba maiteok:

Bihotzez agurtzen zaituztegu Euskal Elizbarrutietako Misioen Egunean. Benetako grazia da gure elizbarrutientzat beren misiolari sustraiak gogoraraztea. Frantzisko Aita Santuak Alemanian hedatuta dagoen Jainkoaren Herriari zuzendutako Gutunean gogoratzen ditu une hauetan guztiz lagungarri izan daitekeen hainbat artzat. Geure sinodo-bide misiolaria ere markatzen duten zantzu bezala eskainiko ditugu.

“Ezinbestekoa da, beraz, gure artzainek ondo adierazi zuten bezala, berriz ere ebanjelizazioa lehenestea etorkizunari konfiantzaz eta itxaropenez begiratzeko, ebanjelizatzaile izanik, Elizak bere burua ebanjelizatzen duelako lehenik eta behin. Elkarte fededun, bizi eta helarazten duen itxaropenaren elkarte, senide maitasunaren elkarte, etengabe entzun behar du zer sinetsi behar duen, zein arrazoi duen itxaroteko, maitasunaren agindu berria” (7). Gure jarduera misiolariaren abiapuntua beti da Jaunaren maitasun sinestezin honen iragarpena. Horixe izan zen lurralde haietan gure misiolari lankidetzaren jatorria. Eta jatorri horretara itzultzen gara urtero egun honetan.

“Hori dela-eta, gure ardura nagusia, gure anai-arrebengana, bereziki gure elizen atarietan, kaleetan, kartzela eta ospitaleetan, plaza eta hirietan, lurrean botata daudenengana ireki eta bila ateraz, poztasun hori nola zabaldu izango da. Jaunak argi hitz egin zuen: «Ardura zaitetzte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak» (Mt 6, 33). Kristoren espirituarekin lurreko errealitate guztiak gantzutzerara atera, bereziki bidegurutze anitzetan, nagusiki kontaketa eta paradigma berriak sortzen diren lekuetan, Jesusen Hitzarekin hirien arimaren erdigunerik sakonenetaraino iritsi. Laguntasuna eman Kristoren Nekaldiak, bekatuaren eta zuzentasunik ezaren eraginez bere Aurpegia oinazetan diren nekaldi eta egoera ugariak benetan eta zehazki uki ditzan” (8). Egun hau dela-eta, berriz gogorazi nahi dugu pertsona ahulenek, behartsuenek leku teologiko bezala, azkenek Jaunaren aurpegiaren ikono bezala eta kaltetuenen aldeko gure zerbitzuak Jaunarekin dugun hartu-emanaren termometro bezala duten lehentasuna. “Eta, aldi berean, Jaunaren Nekaldiak piz beza gure elkarteetan, eta bereziki gazteenen artean, bere Erreinuaren aldeko grina”.

Horregatik, «benetako ebanjelizatzaile izateko beharrezkoa da jendearen ondoan egoteko gogoia izatea ere, horrek goragoko poza ematen duela konturatzeraino. Misioa Jesusenganako grina da, baina aldi berean herriarekiko grina ere bai» (EG 268). Beraz, “Espirituak eliz elkarteei eskatzen

diena" (Ap 2, 7) galdetu beharko genioke geure buruari, garaien zantzuak antzeman, hau, besterik gabe, garaiko espiritura egokitzearen berdina ez bada ere (Erm 12, 2). Entzute, hausnarketa eta bereizketarako dinamika hauen guztien xedea, Elizara gero eta fededunago, prestuago, arinago eta gardenago itzultzea da Berri Onaren poztasuna iragartzeko, hau oinarritzat hartuta aurkituko baitugu argi eta erantzuna auzi guztientzat. Erronkak gainditu egin behar ditugu. Errealista izan behar dugu, baina poztasuna, ausardia eta emate itxaropentsua galdu gabe. Ez diezagutela indar misiolaria lapurtu!".

Gure elkarte ahul eta zahartuetan, ezinbestekoa da lehentasunekin asmatzea. Ez dugu indarririk soberan eta, ondorioz, ez zaigu huts egitea komeni. Une honetan erantzunik onena emateak "sensus ecclesiae" delakoa eskatzen du, Pedrorekin eta kolegio apostolikoarekin elkar harturik, Jainkoaren herri fededunarekin bat eginik eta mundu-mailako Elizak sakramentuak ospatzen dituen eta Hitzaz azaltzen duen erara.

"Pertsona bakoitzaren bila atera Aita bihozberaren adeitasun eta errukiarekin, adone sendo eta eskuzabalarekin. Arreta jarri eta antzeman, zuon ona eta bestearen gaitza, bizi bera doakotasun eta samurtasunez eskaintzeko gai. Hauxe izan dadila zuon bokazioa, Jesus Haurraren Teresa Doneak dioen bezala: bakarrik maitasunak bultzatzen ditu ekintzara Elizako kideak; maitasuna itzaliko balitz, apostoluek ez lukete Berri Ona iragarriko, martiriek uko egingo liokete beren odola isurtzeari", esan zien Aita Santuak gotzain italiarrei beren 70. batzar nagusian.

Misiolari maitasuna berritzeko eta gure misiolariari eta elkarte ahizpei eskuzabaltasunez laguntzeko eguna. Gazteengana irits dadila guztioi dagokigun misio liluragarri honen inguruan arakatzeko nahia eta beraiek izan daitezela misio horren onuradun nagusiak.

Bihotz-bihotzez, gure bedeinkapena.

+ Mario Izeta Gabikagoxeaskoa - Bilboko Gotzaina

+ Jose Ignacio Munilla Agirre - Donostiako Gotzaina

+ Juan Carlos Elizalde Espinal - Gasteizko Gotzaina

+ Joseba Segura Etxezarraga – Bilboko Gotzain Laguntzailea

**2020.eko martxoaren 19a**  
**ELEIZBARRUTIETAKO MISINOEN EGUNA**  
**“MISINOA BIZIA DA”**

**Sarrerako oharra**

Ondo etorriak izan zaitezala ospakizun honetara.

Anai-arrebok: Garizuma aldiko ibilbidean, Eleizak dei egiten deusku San Jose eguna pozez ospatu daigun eta, berak egin eban lez, Jainkoak konfiantza eta eskuzabaltasunez egiten deuskuzan proposamenei erantzun deiegun. Izan be, Jose benetan santua zan, fede-gizona zalako, Jainkoarengandik gertu egoalako, bere gertutasunaren oinarriak maitasuna eta zerbitzua ziralako.

Gaur, Eleizbarrutiko Misinoen Eguna ospatzen dogu, **Misinoa bizia da** goiburuaren haritik. Lurreko behartsuengan Jesukristogaz bat egiteak bizia emoten deusku eta biziemoile egiten. Hauxe da Euskal Eleizbarrutietako Misinoetan misiolari lez parte hartu dauan Euskal Herriko hainbat eta hainbat pertsonaren esperientzia.

Misinoa bizi egiten da Jainkoak bizitzarako proposatzen deuskun egitasmoari baiezkoa emoten deutsen gizon eta emakumeengan. Misinoak goitik behera aldatzen ditu gure bizitzak eta zentzunez beteten. Anai eta arreba txirotu horreei aurpegia jarateak daukagunaz jabetzera garoaz eta gure eguneroko bizitzan konpromisoak hartzera, banatutako gatz, argi eta bizi izatera deitzen gaitu.

Esker on eta itzaropenez, Jaunaren aurrean aurkeztuko gara.

**Abadearen agurra**

**Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta bakea, zuekin.**

**Damu otoitza**

Geure pekatari izatetik, pozez hartu daiguzan Jaunaren errukia eta parkamena:

- Bizizren eta behartsuen Jainko babeslea zarana. Erruki, Jauna.
- Gure larritasunetan itzaropena zarana. Kristo, erruki.
- Gure makaltasunean indarra zarana. Erruki, Jauna.

Jainko Aita, seme-alabek jasaten daben bidegabekeriak atsekabetu egiten zaitu; emoiguzu zure parkamena, zure jakituria eta zure errukia, gure epelkeria eta bildurrak gaintitzeko eta anai-arrebak onartzeko konpromisoa hartzeko. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## Oharra irakurgaiei

Jose da Jesus Daviden ondorengoen artean kokatzen dauan historiako kate-maila. Davidek Jaunari tenplua eraiki gura deutsalara entzungo dogu lehenengo irakurgaietan.

Bigarren irakurgaiak historia Abrahamen fedearen argitan irakurten lagundu gura dau. Patriarka eta fededunen guraso honek belaunaldi askoren aita izateko agintzaria jasoko dau. Berak sinistu eta uste osoa dau Jainkoaren hitzean.

### **IDEIAK HOMILIARAKO**

*(Lehen edo orain lekukotasunik izan ezker, hortik abiatu homilia, eguneko goiburua nabarmenduz).*

Misinoa bizi egiten da Jainkoak bizitzarako proposatzen deuskun egitasmoari baietza emoten deutesen pertsonengan. Gure eleizbarrutietan, gizarte kontsumista eta indibidualista honetan, arlo misiolarian bizi dogun bokazinoen eskasia nabarmena bada be, Espirituak Euskal Eleizbarrutiko Misinoen familiari gehitzen jakozan misiolari bokazinoak sortzen ditu gaur egun be. Etenbarik eskerrak emon behar deutsalaz Jainkoari herrialde txirotuetan bizi egindako misinoaren alde egin daben misiolariengaitik. Eredu doguz, eta gure egitekoa hareei laguntzea eta hareengana hurreratzea izango da, bere esperientzia eta bizitzagaz bat egiteko. Profetek dinoenez: *“Badozu itxaropenik etorkizunerako”* (Jer 31, 17). *“Zerbait barria egitera noa: hasia da sortzen, ez deutsalazue antzematen”* (Is 43, 19).

Jainkoak behin eta barriro deitzen gaitu, mundu hobea egitera bultzatzen gaitu.

Misinoan, Jaun berbiztua bila ataraten jaku, gizalegari dagokionez garrantzi gitxikoa eta ahula dan, haren Hitza erdi-erdian jarten duan eta haren etxean sentitzen dan eta behartsuen Eleizaegiten dauan jenteez osatutako alkarte apalen erdian. Holan, hemengo eta mundu osoko behartsuakaz bizikide izanik bizi dan misinoa, persona lez eta Eleiza lez bihotz-barritzeko, aldatzeko etenbako dinamika da.

Hainbat lekutan, sasoitari eta eratarari, bizitzan, eta maitasunari dagokionez bardin, zenbat eta gehiago emon orduan eta gehiago jasoten dala jakitun, *“MISINOA BIZIA DALA”* egiaztatu dogunok bizi izandako esperientzia da kanpaina honen abiapuntua. Misinoaren esperientzia, norbere eremu eta gauzetatik atara eta gehien sufritzen dabenengana hurreratu eta denpora, fedea, norbere burua,... eskaintzeak misinoa bizia dala esatera garoaz. *“Bizia izan daizuen etorri naz, eta ugari izan daizuen”* (Jn 10, 10)

Misinoak goitik behera aldatzen ditu gure bizitzak eta zentunez beteten. Gure bizitzak misinoa dau. Misinoa bizia da, Barri Ona dakarrelako: zapalketetatik askatu, kendutako duintasuna berreskuratu, zapaldutako autoestimua barriz lortu. Jesusek erizpide etikoa jarten deutse Israelgo jakintsuek egiten ebenari: Jainkoagazko hartu-emonari, gizon-emakumeakazko hartu-emonetik pasatzen da eta ezin da benetan Jainkoa maitatu, bestea maitatzen ez bada. Jainkoaren Erreinua maitasunaren burutzea da eta misinoa bizitza horren zerbitzura jartea. Honek zer pentsatu emon beharko leuskigu.

Lurreko txirotuengan Jesusegaz bat egiteak bizia emoten deusku eta biziemoile egiten. Neurri handi batean, geure bizimodu egoistaren eraginez txirotutako anai eta arreba horreei aurpegia jarreak daukagunaz (aukerak, jakintza, baliabideak,...) jabetzera eta eguneroko bizitzan gatz, argi eta bizi izateko konpromisoa hartzera garoaz.

*Benetan ederra, pertsona bakoitzaren bizia ez dela kaos etsigarrian, halabehar hutsez edo zentzugabe errepikatzen diren zikloez gobernatutako munduan ez dela galtzen ziur jakitea! Kreatzaileak hauxe esan diezaguke gutariko bakoitzari: "Amaren sabelean sortu aurretik aukeratu zintudan" (Jr 1, 5). Jainkoaren bihotzean sortuak izan ginen eta, horregatik, gutariko bakoitza Jainkoaren pentsamenduaren emaitza da. Gutariko bakoitza maitatua da, ezinbestekoa da". LS 38*

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Anai-arrebok, egin daigun otoitz, Jainko errukitsuari gure eskariak entzuteko eskatuz:

- Eleizaren alde. Jesusek aldatu gaizala, etenbako misino egoeran egon gaitzan. Egin daigun otoitz.
- Politiko eta agintarien alde. Etorकिन aurkako politikak alde batera itzi eta gizon eta emakume guztioi dagokigun bizimodu duina ziurtatu daien danontzat. Egin daigun otoitz.
- Gure misiolarien osasun eta sendotasun espiritualarn alde. Gure otoitz eta laguntasuna izan daien. Egin daigun otoitz.
- Munduko alkarte eta herri guztien alde. Hartu-emonean eta alkarlanean izan gaitzala, alkarrengandik ikasteko. Egin daigun otoitz.
- Hemen batu garanon alde. Eukaristian Jesusek aldatu gaizan, bere atzetik konfiantzaz jarraitu eta pozez onartu daigun guretzat dauan misinoa. Egin daigun otoitz.
- Gure eleizbarrutien alde. Misiolari izan daitezcan, gure arteko behartsuenen bidelagun izanda. Egin daigun otoitz.

Jainko Aita ona, Joseri agindu zeuntsan Jesus eta Maria zaintzeko; geu be babestu gaizala eta egunen batean zure agintzariak jaso daiguzala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## **Oharra dirua batu aurretik**

Gaur batu daiten dirua Eleizbarrutietako Misinoetarako izango da. Misiolariak garatzen diharduen egitasmoetan erabiliko dabe batez be. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

## **Abadearen agurra (bedeinkapenaren ostean)**

**Grazia eta salbazinoaren, heriotza eta biziaren aroa da. Gaur, orain, Jainkoa gure artean da eta otoitz egin behar dogu aukera hori aprobeatzeko. Zoaze Jaunaren bakean!**

## ARLO TEORIKOA

Hilabete Misiolarian, Elizbarrutiak benetan misiolari izan dela sentitu dugu eta horixe bizi nahi dugu berriz ere San Jose eguneko 2020ko kanpaina honetan.

Misioa bizi egiten da Jainkoak proposatu digun Biziz beteriko egitasmoari baietza ematen dioten pertsonengan. Gure elizbarrutietan, gizarte kontsumista eta indibidualistan, arlo misiolarian bokazioei dagokienez urritasuna nabarmentzen bada ere, aurtun lau lagun, apaiz eta laiko, gehituko zaizkio Euskal Elizbarrutietako Misioen familiari. Esker ona adieraziko diogu Jainkoari Etiopia eta Ekuadorren bizi egindako Misioaren aldeko hautua egin duten Ramon, Iraide, Itziar eta Josebarengatik eta lagun egin, babestu egingo ditugu eta hurbildu egingo gatzazkie beren esperientzia eta biziaren geure egiteko.

*"Baduzu itxaropenik etorkizunerako" (Jer 31, 17) "Hara, zerbait berria hasia da sortzen, ez al diozue antzematen?" (Is 43, 19)*

Familia misiolariaren ugaltze hau Espirituaren eta prestaketaren emaitza da. Otoitza, heziketa eta munduaren ezagutza zabala oinarritzat hartuta, gazte eta helduak prestatzen jarraitzea da xedea, gertuko eta urrineko inguruaren deia entzun eta gizon eta emakume txiroengan aurkituko duten Jesusen bila atera daitezten. Jainkoak etsi gabe deitzen eta bultzatzen gaitu mundu hobea egitera.

### MISIOA BIZIA DA

Askotariko leku, garai eta eratarata, "MISIOA BIZIA DA – LA MISIÓN EZ VIDA", hau da, bizia eta maitasuna, zenbat eta gehiago eman are gehiago jasotzen dela, egiaztatu dugunok bizi izandako esperientzia da kanpaina honen abiapuntua. Esperientzia misiolariak, norbere eremutik ateratzeak, gehien sufritzen ari direnengana hurbiltzeak eta denbora, fedea, norbere burua... eskaintzeak, misioa bizia dela esatera garamatza.

*"Gizakia, hartu-emanen jartzen denean, Jainkoarekin, besteekin eta izaki guztiekin elkartasunean bizi izateko bere baitatik ateratzen denean, gehiago hazten, osatzen eta santutzen delako." LS 240*

*"Bizia –eta bizia ugari gainera- izan dezazuen etorri naiz" (Jn 10, 10)*

### MISIOA BIZIA DA

Neurri handi batean geure bizimodu egoistagatik txiroitutako anai eta arreba hauei aurpegia jartzeak daukagunaz (aukerak, jakintzak, baliabideak...) jabetzera garamatza eta geure eguneroko misioan konpromisoak hartzera deitzen gaitu, hau da, gatz, argi eta banatutako bizi izatera.

*Gizadi osoarekin eta "erdiminetan intzirika dagoen" (Erm 8, 22) kreazioarekin batera gorputz bat osatzen dugula sentitu.*

### MISIOA BIZIA DA

Lurreko txirotuengan Jesusekin bat egiteak bizia ematen digu eta bizi-emaitza egiten gaitu.

*"Dohakabe eta behartsuak ur bila dabilta, baina alferrik; lehor dute mihia egarriz. Nik, Jaunak, erantzungo diot haien premiari, nik, Israelen Jainkoak, ez ditut bazterrera utziko. Mendi-kasko soiletan erreak sortuko ditut, ibarretan iturriak; basamortua aintzira bihurtuko dut, lur lehorrean iturburuak sorraraziko." Is. 41, 17-18*

### MISIOA BIZIA DA

*"Ez dut joan nahi, baina ezin naiz joan gabe geratu", Ruandan misiolari izan zen Isidro Uzcudunena bezalako lekukotasunek bizia emate-, konpromiso-sena ematen diote.*

*Benetan ederra, pertsona bakoitzaren bizia ez dela kaos etsigarrian, halabehar hutsez edo zentzugabe errepikatzen diren zikloez gobernatutako munduan ez dela galtzen ziur jakitea! Kreatzaileak hauxe esan diezaguke gutariko bakoitzari: "Amaren sabelean sortu aurretik aukeratu zintudan" (Jr 1, 5). Jainkoaren bihotzean sortuak izan ginen eta, horregatik, gutariko bakoitza Jainkoaren pentsamenduaren emaitza da. Gutariko bakoitza maitatua da, ezinbestekoa da". LS 38*